

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Ingurumenak bost topaketa antolatu ditu Nafarroako ibaietako arrantzaren egoera aztertzeko

Lehena urriaren 3an (asteazkena) izango da Lizarran, eta, ondoren, Bertizen, Irunberrin, Tuteran eta Iruñean egingo dira

Osteguna, 2018.eko irailak 27

Ingurumenak bost topaketa antolatu ditu Nafarroako ibaietako arrantzaren egoera aztertzeko helburuarekin, arrantzaleen eta gai horretan interesa duten pertsonen iritzia biltzarren. Bilerak egingo dira 2016an egindako parte-hartze prozesuaren ondoren Administrazioak hartutako konpromisoari erantzuteko.

Lehena datorren asteazkenean, urriaren 3an izango da Lizarrako Fray Diego Zentroan, Lizarrako Erribera inguruan eskualde ziprinikolaz / Egako arroaz hitz egiteko. Hurrengo saioak urriko beste lau asteazkenetan izango dira, honako leku hauetan: urriaren 10ean, Bertizko Jauregian, Baztan-Bidasoa / Oria-Urumea kantauriar arroen inguruan; urriaren 17an, Irunberriko Arroilen Interpretazio Zentroan, Eska-Salazar / Irati-Erro Pirinioetako arroen gainean; urriaren 24an, Lourdes zentro zibikoan Erribera / Eskualde ziprinikolaren inguruan; eta urriaren 31n, Iruñean, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuaren egoitzan, Arga-Ultzama / Larraun-Basaburua / Eskualde ziprinikolaren inguruan. Saio guztiak 18:00etatik 20:00etara bitartekoak izango dira.

Ingurumenaren asmoa da bileren bitartez ibaiertzeko arrantzaleekin eta inguruneko pertsona interesatu guztiekin harreman gehiago izatea, arro bakoitzeko arazo ezberdinen eta zona bakoitzean eragina duten xehetasunen inguruan informazioa trukatzeko aldera. Halaber, topaketei esker, urteko Debekualdien Foru Agindua, adostuta egoten dena, zehaztu ahal izango da. Azkenik, Departamentuak arrantza-arloan burututako jarduerak eta laginketen emaitzak azalduko dira.